

BERMEOKO

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

**2019. URTEKO PLANA
(2019-2022)**



Bermeoko berdintasunerako II. plana

Bermeoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Udal Plana, herrian **berdintasun politikak bultzatzeko** tresna baliagarria izango da hurrengo lau urtetarako (2019-2022). Planaren jarduerak hobeto kudeatzeko urteko planak landuko dira.

Tresna honen erabilgarritasuna bermatzeko, herriaren eta Udalaren ezaugarriak izan dira kontutan.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana zeharkakotasunaren ikuspegitik landuko da, hots, Udalaren arlo eta zerbitzu guztiek bere gain hartu beharko dute

II. Berdintasunerako Planaren ARDATZAK ETA HELBURUAK:

1. GOBERNANTZA

- 1.1.** Konpromiso politikoa eta berdintasunerako politikak lantzeko dauden bitartekoak hobetzea eta indartzea.
- 1.2.** Elkarlanerako guneak sortzea.
- 1.3.** Berdintasunerako trebakuntza.
- 1.4.** Udalak berdintasunarekin hartutako konpromisoa herrian ikustaraztea.

1.5. Udaleko lan-prozedura eta politika guztietan genero-ikuspegia txertatzea.

1.6. Udala bide erakusle izateko aurrerapausuak ematea.

2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

2.1. Emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa sustatzea.

2.2. Emakumeen ahalduntze soziala eta politikoa sustatzea.

3. ANTOLAKETA SOZIAL ERANTZUNKIDEA

3.1. Berdintasuna gizarte-balio gisa aitortzea, eta herritarrak nahiz herriko eragileak berdintasunaren inguruan sentsibilizatzea.

3.2. Herritarrekin eta, bereziki, haur eta gazteekin hezkidetza eta sexu heziketa lantzen jarraitzea.

3.3. Emakumeen autonomia sozioekonomikoa bultzatzea.

3.4. Zaintza-lanen balioa aitortzea, eta zaintza-lanekiko erantzunkidetasuna sustatzea.

4. INDARKERIA SEXISTARIK GABEKO HERRIA

4.1. Indarkeria matxistaren aurrean Udalak jarrera eragilea izatea.

4.2. Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioan eta prebentzioan lan egitea.

4.3. Indarkeria sexista jasan duten emakumeei ematen zaien arreta hobetzea eta euren ahalduntze-prozesuetan laguntzea.

4.4. Koordinazioa hobetzea.

1. ARDATZA:

BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA / GOBERNU ONA

Gobernu onaz hitz egitea demokrazia parte-hartzaileaz, giza eskubideez eta justizia sozialaz hitz egitea da.

Berdintasunean oinarritutako eredu batera igarotzean datza, eraginkortasuna, gardentasuna, kontuak ematea eta gizarte zibilaren parte-hartzea baliatuz.



ZER EGINGO DUGU?

II Berdintasun Planari babes politikoa ematea, eta plana garatu ahal izateko beharrezkoa den aurrekontua bermatzea.

Sailen eta Berdintasunaren arteko elkarlana sustatzea, herritarrei zuzendutako hainbat ekimen era bateratuan antolatzeko.

Berdinsarea, Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sareari atxikitu.

Udalaz gaindiko **koordinazio-guneetan nahiz ekimenetan parte hartzen** hasi edo/eta jarraitu (Beldur Barik, Basque Eskola...).

Udal-sail arduradunei eta politikariei **berdintasunean trebatzeko saioak** eskaini.

Udalak egiten dituen agerraldietan **emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua** bermatzea.

Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako planetan.

Udalan **komunikazio barneratzailea eta ez-sexista** izateko informazioa zabaldu.

2. ARDATZA:

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Emakumeen ahalduntzea bultzatzea lehentasunezko ardatza izan da politika publikoetan, jendarteak demokratizatzeko prozesuen parte bezala.

Bi ardatzen baitan jardun behar da: Emakumeen eta emakume-mugimenduen ahalduntze indibidual, kolektibo, sozial eta politikorako prozesuak babesten, eta, bestetik, prozesu horiek ikusgarri eta iraunkor egiten.



ZER EGINGO DUGU?

Jabetze eskola sortzeko azterketa egitea.

Emakumeen aitortza: hiri-elementuetan islatzea: monumentu eta eskulturetan eta bestelako herri-egituretan. Horretarako proposamenak aurretiaz landu.

Emakumeen kirol-praktika ezagutarazteko ekimenak antolatzea.

Liburutegiko **txoko feminista** indartu eta herriko jaietan emakumeen partaidetza maila guztietan bermatzeko neurriak hartzea (kontzertu, ekintzak, musika...).

Emakumeak elkarren artean laguntzeko eta euren arteko sareak sustatzeko auto-laguntzarako talde bat sortzea.

Berdintasunerako Kontseilu feminista: Funtzionamendua garatzeko beharrezko dituen baliabideak bermatu.

3. ARDATZA:

EKONOMIA ETA GIZARTE-ANTOLAKETA BERDINZALEA SUSTATZEA

Politika publikoak, genero-justiziara bideratuta badaude, tresna eraginkorra izan daitezke laneko sexu-banaketa apurtzeko eta eraldaketa soziala eta ekonomikoa bultzatzeko.

Beste jendarte-eredu bat bermatzeko: berdintasuna erdigunean duen jendarte.



ZER EGINGO DUGU?

Herriko komunikabideekin hitzarmena sinatzea **emakumeei protagonismo handiagoa** eman diezaioten.

Rol eta estereotipo sexistak gainditzeko urratsak ematea herriko sektore ezberdinetan:

Herritarrak berdintasunaren inguruan **sentsibilizatzeko ekimenak** egiten jarraitzea,

Hezkidetzak mahaia sortzea: udala eta herriko ikastetxeetako ordezkariak bildu eta hezkidetzak programen diseinu eta jarraipena egiteko, hala nola, koordinazioa eta elkarlana sustatzeko. sexu-heziketako esku-hartzea era koordinatuan egiteko.

Egoera zaugarrian dauden **emakumeen enplegua** sustatzeko estrategikoak diren esku-hartzeko lehentasunezko eremuak identifikatzea.


Gizonen erantzunkidetasuna bultzatzea:

Udalaren erantzunkidetasuna: Udalerrian ekimenak antolatzerakoan, bateragarritasuna erraztuko duten ordutegiak, zerbitzuak eta baliabideak eskaintzeko.

4. ARDATZA:

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA

Sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan (4/2005.LEGEA otsailaren 18KOA, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa).



ZER EGINGO DUGU?

Emakumeentzako **aholkularitza juridikoa** bermatzea.

Indarkeria sexista jasaten duten emakumeen arretari buruzko hausnarketa egitea, **egun dauden baliabideen egokitasuna aztertuz**, eta ateratako ondorioekin **hobekuntza-neurriak martxan jartzea**.

LGTBIQ+ taldeek gazteen artean nozitzen duen diskriminazioari aurre egiteko ekimenak martxan jartzea.

Gazteekin indarkeria matxista prebenitzeko lanketak egitea.

Herritarrak indarkeria matxistari aurre egitearen beharraren inguruan **sentsibilizatzeko ekimenak** antolatzea.

Erantzun-Protokoloa: Bermeon gertatutako indarkeria kasuen eta eraso sexisten aurrean.

